# EUROESKUALDEA

KOPRODUKZIO GIDA



ZINEMA

EUSKADI 5

NAFARROA 11

AKITANIA BERRIA 17


# SARRERA

Euroeskualdeko lurraldea lankidetza eta aukera eremua da. Garapen ekonomikoa, soziala eta kulturala sustatzeko proiektuak elkarrekin eraikitzen ditugu mugaz gaindi, eskualdeen artean eta Europa mailan. Ikus-entzunezko mugaz bestaldeko proiektuek lurraldeak eskaintzen dituen aukerak erakusten dituzte: eskuragarri dauden baliabideak elkartzea eta sinergiak garatzea.

Akitania Berria Euskadi Nafarroa LLET Euroeskualdeak, burutzen dituen ekintzei eta babesten dituen proiektuei esker, Euroeskualdeko artisten mugikortasuna bultzatzen du, lanak mugaren bi aldeetan zabaltzen laguntzen du eta koprodukzioak sustatzen ditu. Horrela, Euroeskualdeak laguntza ekonomikoa eskaintzen die ikus-entzunezko agenteei ("Euroeskualdeko Herritartasuna" proiektu deialdia, lankidetza estrategikoa, etab.) eta dinamizazio eta sare lanak egiten ditu.

Euroeskualdea, Akitania Berria, Euskadi eta Nafarroa ordezkatzen dituen erakunde gisa, koprodukzio gida hau aurkezteaz pozten da.


**GECT Eurorégion Nouvelle-Aquitaine Euskadi Navarre**
18 rue Leku Eder, 64 700 Hendaye

Marie Heguy-Urain

+33 6 23 15 95 95
Marie.heguy-urain@euroregion-naen.eu

# EUSKADI



# EUSKADI

## 1) LEHENTASUN NAGUSIAK

Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak gidoietarako, proiektuen garapenerako eta euskal filmen produkziorako zein ko-produkziorako diru-laguntzak ematen ditu.

Filmak erakusteko lana babesten du eta filmak sustatzen laguntzen du Zineuskadi elkartearen bidez. Era berean, ondare zinematografikoa sustatzen du, Euskadiko Filmategiaren bitartez.

Horrez gain, euskal zinemagintza ordezkatzen du atzerrian, Basque Audiovisual-en bidez eta Etxepare Euskal Institutuaren, Eiken ikus-entzunezkoen klusterraren eta Zineuskadiren arteko koordinazioari esker.

## 2) KENKARIAK ATZERRIKO FILM ETA TELESAILETARAKO ZERGETAN

### HOBARI MOTA

**Araba**: % 25
**Bizkaia**: % 20
**Gipuzkoa**: % 25

### GASTU KENGARRIAK

1. Sormen-arloko langileen gastuak (zerga-egoitza Espainian edo Europar Batasuneko beste herrialde batean badute). Gehienez 50 000 € pertsona bakoitzeko.

2. Industria teknikoen eta beste hornitzaile batzuen gastuak.

### BALDINTZAK ETA MUGAPENAK

- Espainian egindako gastua 1 milioi eurokoa izan beharko da gutxienez (2 milioi eurokoa Arabaren kasuan).

- Ezin da 2,5 milioi euroko muga gainditu, produkzio bakoitzeko.

- Kenkariaren zenbatekoak, zergadunak jasotako gainerako laguntzei gehituta, ezin du produkzioaren kostua gainditu.

### EPEA

- Zerga itzultzeko eskabidea aurkezteko eskubidea Egikaritze Zerbitzuaren menpe dago eta grabaketa egin den urtearen osteko zergaldiaren barruan aurkeztu behar da eskabidea. Beste modu batera esanda, Egikaritze Zerbitzuak enpresaren diru-sarreren gaineko zergan ordaindutako kopurua bueltatzeko formularioa betetzen duenean (uztailean).

- Enpresak sozietateen gaineko zergaren aitorpen-formularioa aurkeztu osteko sei hilabeteen baitan itzuli behar da zerga-kenkaria. Atzerapenik egonez gero, berandutze-interesak ordainduko dira.

- Banku espainiar batek finantzatu dezake zergen itzulketa.

## 3) PRODUKZIO ESPAINIARRETARAKO ETA NAZIOARTEKO KOPRODUKZIOETARAKO ZERGA-KREDITUA

### HOBARI MOTA

**Araba**: % 30 * % 40 (filma euskaraz bada)

**Bizkaia**: % 30

**Gipuzkoa**: % 30 * % 40 (filma euskaraz bada)

### GASTU KENGARRIAK

Produkzio gastuen guztirakoa + inprimaketa gastuak + produktorearen marketin gastuak.

### BALDINTZAK ETA MUGAPENAK

- Kenkaria kuotaren mugarik gabe aplikatzen da Bizkaian. Araban eta Gipuzkoan* kenkari horren zenbatekoa ezingo da 2,5 milioi eurotik gorakoa izan.

- Kenkariaren zenbatekoak, jasotako gainerako diru-laguntzei gehituta, ezingo du produkzioaren kostuaren % 50 gainditu.

- Koprodukzioak: atal honetan ageri diren zenbatekoak koproduktore bakoitzak zehaztuko ditu, produkzio bakoitzean izandako parte-hartzearen ehunekoaren arabera.

- Produktoreak Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren Enpresa Zinematografikoen Erregistroan inskribatuta egon beharko dira.

- % 40 jatorrizko hizkuntza euskara duten produkzioen kasuan. Gutxienez zerga-oinarriaren % 50 Araban eta Gipuzkoan egindako gastuetarako izango da.

**HARREMANETAN JARTZEKO**

**Donostiako Film Batzordea - Gipuzkoa**
Marta Zabaleta
+34 943 48 28 00
filmcommission@donostia.eus

**Gasteizko Film Office**
Ana Ruiz
+34 945 16 16 16 (Ext.4381)
filmoffice@vitoria-gasteiz.org

**Bilboko Film Batzordea - Bizkaia**
José Agustín Atxa
+34 944 205 397
info@bifilmcommission.com
aatxa@bilbaoekintza.bilbao.eus

## 4) ESKUALDE MAILAN IKUS-ENTZUNEZKOEN ARLOARI LAGUNTZEKO ARDATZ NAGUSIAK

**EUSKO JAURLARITZA**
(KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA)

- Film luzeen ikus-entzunezko produkziorako laguntza (fikzioa, dokumentala eta animazioa)

- Film laburren ikus-entzunezko produkziorako laguntza

- Proiektu bakanen garapenerako laguntza

- Gidoiak idazteko laguntza

**ZINEUSKADI**

- Film luzeen produkziorako laguntza (fikzioa, dokumentala eta animazioa)

- Ustiapenerako laguntza

- Filmak euskaraz bikoizteko laguntza (hainbat epe)

## 5) MUGIKORTASUN FUNTSAK

- **Jaialdietarako laguntza:** nazioarteko zine jaialdi baten sekzio ofizialean parte hartzeko hautatuak izan direnei. Bidaiaren, ostatuaren eta egonaldiaren gastuak.

- **Lehiaketetarako laguntza**: nazioarteko ikus-entzunezko lehiaketetan parte hartzeko laguntza. Bidaiaren, ostatuaren eta egonaldiaren gastuak.

- **Gehienez**: 1000 € jaialdi edo lehiaketa bakoitzeko eta urtean 2250 € profesional bakoitzeko.

## 6) AURKEZTEKO EPEA

**EUSKO JAURLARITZA**
(KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA)

- Urteko bigarren hiruhilekoa

**ZINEUSKADI**

- **Sustapena**: Apirila

- **Erakusketa**: Ekaina

**ETXEPARE EUSKAL INSTITUTUA**

- Ekainetik irailera.

## ELKARTE SEKTORIALAK

**IBAIA**
Ikus-entzunezkoen Euskal Ekoizle Burujabeen Elkartea

Marian Fernández

info@ibaia.org
+34 943 327 183
www.ibaia.org

**EPE-APV**
Euskal Produktoreen Elkartea

Carlos Juárez

info@epe-apv.com
+34 944 050 259
http://epe-apv.com

**APIKA**
Arabako Ikusentzunezko Ekoizle Burujabeen Elkartea

Maite Ruiz de Austri

apika.asociacion@gmail.com
+34 659 310 749
www.apika.eus

## TELEBISTA

**EITB**

Aritz Galarza

Erosketen arduraduna
galarza_aritz@eitb.eus
+ 34 94 6563264
www.eitb.eus

## BESTE ELKARTE BATZUK

**Gidoigileen elkartea**

Eguzkiñe Aranzibia

mensaje@gidoi.com
+34 944 166 745
www.gidoi.com

**HEMEN**
Euskadiko ikus-entzunezkoen eta arte eszenikoen sektoreko emakumeen elkartea

Lara Izagirre & Olatz Beobide

info@hemen.me
www.hemen.me

**EIKEN CLUSTER**
Euskal Herriko Ikus-entzunezko Enpresen Klusterra

Zuriñe Pampliega

zpampliega@eikencluster.com
+34 944 048 225
eikencluster.com

**EUSKAL AKTORE BATASUNA**

Eneko Olasagasti

eabdonostia@euskalaktoreak.eus
+34 943 314 822
www.euskalaktoreak.eus

**EZAE**
Euskadiko Zine Aretoen Elkartea

Aitor Ubarretxena

+34 943 224 530
ezae@ezae.eus
www.ezae.eus

**CREATIVE EUROPE MEDIA**

Ainhoa González Sanchiz

a.gonzalez@
europacreativaeuskadi.eu
+34 943 326 837
www.europacreativaeuskadi.eu

## FILM BATZORDEAK

**GASTEIZKO FILM BATZORDEA**

Ana Ruiz

flmoffice@vitoria-gasteiz.org
+34 945 161 616 ext. 4381
filmoffice@vitoria-gasteiz.org

**BILBOKO FILM BATZORDEA - BIZKAIA**

Agustín Atxa Picaz

info@bifilmcommission.com
aatxa@bilbaoekintza.bilbao.eus
+ 34 944 20 53 97
www.biflmcommission.com

**DONOSTIAKO FILM BATZORDEA - GIPUZKOA**

Marta Zabaleta

filmcommission@donostia.eus
+34 943 482 800

## INSTITUZIOAK/ ERAKUNDEAK

**EUSKO JAURLARITZA**

Manu Galarraga

m-galarraga@euskadi.eus
www.euskadi.eus
+34 945 016 941

**EUSKADIKO FILMATEGIA**

Joxean Fernández

flmoteca@flmotecavasca.com
+34 943 468 484
www.flmotecavasca.com

**ETXEPARE EUSKAL INSTITUTUA**

Alex Aginagalde

a-aginagaldelopez@etxepare.eus
+34 943 023 400
www.etxepare.eus

# BASQUE AUDIOVISUAL

DIREKTORIOA

**ZINEUSKADI**
Euskal Ikus-entzunezko Sektorea Bultzatzeko Elkartea

Jara Ayucar

info@basqueaudiovisual.eus
+34 943 595 862
www.zineuskadi.eu
www.basqueaudiovisual.eus

## JAIALDIAK

**Asier Errasti Eibarko Film Laburren Jaialdia**
www.planocorto.es

**Animadeba**
www.animadeba.com

**Animakom Fest**
www.animakom.com

**Begiradak – Las Otras Miradas**
www.lasotrasmiradasfestival.com

**Bideodromo – Nazioarteko Zine eta Bideo Esperimentalen Sarea**
www.bideodromo.com

**Bilbao Mendi Film Festival**
www.mendifilmfestival.com

**Caostica**
www.caostica.com

**Cortada. Vitoria-Gasteizeko Film Laburren jaialdia**
www.festivalcortada.com

**Dock of the Bay**
www.dockofthebay.es

**Donosskino**
www.kristonkino.com/donosskino

**Enkarzine**
www.enkarzine.com

**Errenteria Film Laburren Jaialdia**
www.film.errenteria.eus

**Euskal Zine Bilera**
www.zinebilera.eus

**Fant. Bilboko Zinemaldi Fantastikoa**
fantbilbao.eus

**Donostiako Giza Eskubideen Zinemaldia**
www.zinemaetagizaeskubideak.eus

**Bidasoako Nazioarteko Arkeologia Zinemaldia**
www.ficab.org

**Zinema Ikusezinaren Jaialdia - KCD**
www.kcd-ongd.org

**FesTVal**
www.festval.tv/vitoria.html

**Ficbe. Gai Sozialei buruzko Film Laburren Nazioarteko Jaialdia**
www.ficbe.com

**Gaztezulo Bideo Lehiaketa**
www.gaztezulo.eus

**Gaztefilm**
www.gaztefilmfest.com

**Giza Eskubideak Herrira Nazioarteko Korto Lehiaketa**
www.ordizia.eus

**Giza Eskubideen Zinemaldia**
zinemaetagizaeskubideak.eus

**Huezinema Euskal Film Laburren Jaialdia**
www.huhezinema.eus

**Humor en corto / Umorea labur**
www.humorencorto.com

**Ikuska**
www.ikuska.eus

**Korterraza Film Labur Jaialdia**
www.korterraza.com

**Leioako Film Laburren Lehiaketa**
www.kulturleioa.com

**Mikrofilm Short Festival**
www.mikrofilmfestival.com

**Donostiako Zinemaldia**
www.sansebastianfestival.com

**Santurzine**
www.santurzine.es

**Fantasiazko eta Beldurrezko Zinemaren Astea**
sansebastianhorrorfestival.eus

**Sopela Kosta Fest**
www.sopelakostafest.com

**Surfilm festival**
www.surfilmfestibal.com/donostia-san-sebastian

**Zinebi. Bilboko Dokumental eta Film Laburren Nazioarteko Jaialdia**
www.zinebi.eus/web/

**Zinegoak**
www.zinegoak.com

**Zinemakumeak gara!**
www.zinemakumeak.com

**Zinetxiki**
www.zinetxiki.net

# NAFARROA



# NAFARROA

## 1) LEHENTASUN NAGUSIAK

Nafarroako Gobernuko Kultura eta Kirol Departamentuak urtero ematen ditu Generazinema diru-laguntzak. Hala, diruz laguntzen ditu film nafarrak garatzeko, ekoizteko eta sustatzeko proiektuak eta babesa ematen die Nafarroako proiekzio-aretoei eta Foru Komunitatean antolatutako jaialdiei. Era berean, Departamentuak Nafarroako ondare zinematografikoa babesteko ekintzak gauzatzen ditu, Nafarroako Filmotekaren artxiboen bidez.

Nafarroako Filmotekaren, Nafarroako Film Commission delakoaren eta Punto de Vista zinema dokumentaleko jaialdiaren programak kudeatzen ditu, NICDO enpresa publikoaren bitartez.

## 2) ATZERRIKO FILM ETA TELESAILETARAKO ZERGAK ARINTZEA ETA ZERGA-ARLOKO KENKARIAK

Fikzioaren, animazioaren eta dokumentalaren kategorietako produkzio zinematografikoetan eta ikus-entzunezko serieetan egindako inbertsioengatiko kenkariak (26/2016 Foru Legea, Sozietateen gaineko Zergari buruzkoa, 65. artikulua).

**Onuradunak:**

- Fikzioaren, animazioaren eta dokumentalaren kategorietako film luzeen eta ikus-entzunezko serieen produkzio espainiarretan parte hartzen duten produkzio-etxeak edo enpresa koproduktoreak (65.1. artikulua).
- Film luze eta dokumental espainiarrak zein nazioartekoak ekoizteaz arduratzen diren produkzio-enpresak (65.2. artikulua).
- Sozietateen gaineko Zerga edo Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga ordaintzen dutenak, fikzioaren, animazioaren eta dokumentalaren kategorietako film luze eta ikus-entzunezko serie espainiarren finantzaketan parte hartzen dutenean (65 bis artikulua).

### 65.1. ARTIKULUA

**Aplikazio-eremua**: film eta telesail espainiarrak ekoizteko egindako inbertsioa (fikzioa, animazioa edo dokumentala).

**Hobari mota globala**: Gastu kengarrien % 35.

**Hobari mota globala**: Gastu kengarrien %40 (kenkaria aplikatuko zaion oinarriaren lehenengo milioia kontuan hartuta), honako kasu hauetan:

- Jatorrizko bertsio bakarra euskarazkoa duten produkzioak.
- Beren-beregi errealizadoreek egindako produkzioak.
- Dokumentalen produkzioa.
- Animaziozko produkzioak.
- Fikzioaren, animazioaren edo dokumentalaren kategorietako film luze edo ikus-entzunezko serie baten lehenengo produkzioa edo ko-produkzioa.

**Kenkariak**: produkzio gastuak, publizitate gastuak, promozio gastuak, egokitzapen gastuak eta inprimatze gastuak.

**Baldintzak eta mugapenak**:

- Gastuen % 40 baino gehiago Nafarroan egitea.
- Kenkariaren gehieneko zenbatekoa: 5 milioi euro.
- ICAAk (Zinemagintzaren eta Ikus-entzunezko Arteen Institutua) emandako nazionalitate-ziurtagiria eta kultur kalifikazioa.
- Aldez aurreko txostena eta osteko balorazioa, Nafarroako Gobernuko Kultura Zuzendaritza Nagusiaren partetik.

### 65.2. ARTIKULUA

**Aplikazio-eremua**: film luze edo ikus-entzunezko lan espainiarrak zein nazioartekoak ekoizteko zerbitzuak.

**Hobari mota**: Gastuen % 35 Nafarroan egitea.

**Kenkariak**: Nafarroan egin diren eta zuzenean produkzioari lotuta dauden gastuak, honako hauenak:

- Sormen-arloko langileen gastuak, haien zerga-egoitza Espainian edo Europako Esparru

Ekonomikoko estatu batean badute. 50.000 euro pertsona bakoitzeko, gehienez ere.

- Industria teknikoak eta beste hornitzaile batzuk erabiltzeagatik izandako gastuak eta baita produkziorako egindako garraio, ostatu eta iraute gastuak ere.

**Baldintzak eta mugapenak**:

- Gutxienez astebetez grabatu beharko da Nafarroan, barruko espazioetan edo kanpoaldean.

- Kenkaria aplikatuko zaion oinarriak ezin du produkzioaren kostu osoaren % 80 gainditu.

- Kenkariaren gehieneko zenbatekoa: 5 milioi euro.

- Ez da kenkaria aplikatuko zerbitzuen onuraduna den produktoreak 65.1 artikuluan jasotako kenkaria aplikatzen badu.

### 65 BIS. ARTIKULUA

**Aplikazio-eremua**: 65.1 artikuluan jasotako kenkariak aplikatzeko eskubidea duten beste zergadun batzuek fikzioaren, animazioaren eta dokumentalaren kategorietan egindako film luzeen zein ikus-entzunezko serieen produkzio zinematografiko espainiarren finantzaketan parte hartzen duten zergadunak.

**Kenkariak**: Kuotaren aldetik, itzulitako diru kopurua 1,25ekin biderkatzetik lortutako emaitza, gehienez ere.

**Baldintzak eta mugapenak**:

- Ezin da aplikatu zergaduna produkzio-enpresako bazkide denean.

- Produkzio-etxearen eta produkzioaren finantzaketan parte hartzen duen zergadunaren arteko finantzaketa-akordioa sinatu beharko da, kenkaria aplikatuko den zergaldia bukatu aurretik.

- Zergadunek ezingo dute jabetza intelektualaren eskubiderik edo produkzioaren emaitzen gaineko bestelako eskubiderik erosi.

- Produkzio-etxeak ez du 65.1 artikuluan jasotako kenkariak aplikatzeko eskubiderik.

## 3) IKUS-ENTZUNEZKO PRODUKZIOETARAKO DIRU- LAGUNTZAK

**Generazinemaren garapena:** Fikzioaren, dokumentalaren edo animazioaren kategorietan film luzeen eta ikus-entzunezkoen proiektuak egiteko diru-laguntzak. 2021/01/01etik 2022/10/31ra bitartean egindako banakako proiektuak edo serieak.

**Generazinemaren produkzioa:** Momentu honetan proiektu-fasean dauden eta fikzioaren, dokumentalaren edo animazioaren kategorietakoak diren film luzeak eta ikus-entzunezkoak (iraupen luzea zein laburra dutenak) ekoizteko diru-laguntzak. 2021/01/01etik 2022/10/31ra bitartean egindako banakako proiektuak edo serieak.

**Generazinemaren sustapena:** Azoketan eta jaialdietan edo Nafarroako ikus-entzunezko industria profesionaleko film luzeak sustatu edo zabaltzeko ekintzetan parte hartzeko diru-laguntzak, 2020/11/01etik 2021/10/31ra bitartean.

**Generazinema jaialdiak:** Nafarroan jaialdiak eta lehiaketa zinematografikoak antolatzeko diru-laguntzak. Aurrez aurre edo urrutitik egin ahalko dira jaialdi eta lehiaketa horiek, 2020/11/01etik 2021/10/31ra bitartean.

**Generazinemaren erakusketa:** Proiekzio-areto pribatuetarako eta kudeaketa pribatua duten proiekzio-aretoetarako diru-laguntzak, programa zinematografiko orokorrak zein interes partikularrekoak egiteko, 2020/10/01etik 2021/09/30era.

## 4) MUGIKORTASUN FUNTSA

**Mugikortasunerako dirulaguntzak**: Azoketan eta jaialdietan parte hartzeko diru-laguntzak: ostatu gastuak, eguneroko kalte-ordainak eta lekualdaketa gastuak, akreditazio gastuak edo izen-ematearen gastuak, etab.

**Gehieneko kopurua:** 3,000 € hautagai bakoitzeko.

## 5) AURKEZTEKO EPEA

**Generazinemaren garapena, produkzioa, jaialdiak eta erakusketa**: urteko bigarren hiruhilekoan.

**Generazinemaren sustapena**: apirila-urria.

## ELKARTE SEKTORIALAK

**NAPAR**
Nafarroako Ikus-entzunezkoen Ekoizle eta Profesionalen Elkartea

www.napar.eu
contacto@napar.eu

**CLAVNA**
Nafarroako Ikus-entzunezkoen Poloa

www.clavna.com
info@clavna.com
C/ Arrieta, 8, 7º. 31002 Pamplona

## TELEBISTA

**NAVARRA TELEVISIÓN**

www.navarratelevision.es
info@navarratelevision.es
Pol. Plazaola, Manzana C, Nave 18
31195 Berrioplano. Navarra
+34 948 13 82 00

## FILM COMMISSIONS

**NAVARRA FILM COMISSION**
NICDO

Plaza baluarte, s/n. 31001 Pamplona
filmcommission@navarra.es
+34 848 424 752

## INSTITUZIOAK/ ERAKUNDEAK

**NAFARROAKO GOBERNUA**
Kultura Zuzendaritza Nagusia.
*Ikus-entzunezko proiektuen eta proiektu digitalen atala*

C/ Navarrería, 39. 31001 Pamplona
cine@navarra.es
+34 848 424 758
+34 848 429 109

**NAFARROAKO FILMOTEKA**

**Programazio-sektorea**
NICDO

filmoteca@navarra.es
+34 848 424759

**Artxiboen sektorea**
Sección de Biblioteca
y Filmoteca de Navarra

filmoteca.archivo@navarra.es
+34 848 427764

## JAIALDIAK

**Punto de Vista - Nafarroako Zinema Dokumentaleko Jaialdia**
NICDO
www.puntodevistafestival.com
puntodevista@nicdo.es

**Tuterako Opera Prima zinema jaialdia**
www.operaprimafestival.es

Tudela-Cultura

tudelacultura@tudela.es

**Tuterako Zinema Espainiarraren Erakustaldia**
www.tudelacultura.es

Tudela-Cultura

tudelacultura@tudela.es

**NIFF –Nafarroako Nazioarteko Zinema Jaialdia**
www.navarrafestival.com

Estudios Melitón

info@estudiosmeliton.com

**Iruñeko Zinema eta Emakumeen Erakustaldia**
www.muestracineymujeres.org

Fundación IPES

fundacion@fundacionipes.org

**CTL 59" – Ikus-entzunezko sorkuntza lehiaketa**
www.ctl-online.com

CTL formación imagen y sonido

info@ctl-online.com

**Navarra Tierra de Cine**
www.navarratierradecine.es

Marcos Perera

marcosperera@
navarratierradecine.es

**Zinetika Jaialdia**
www.zinetikafestival.com

El trastero creativo

info@zinetikafestival.com

**Nafarroako Anime Jaialdia- FAN Festival**
www.fanfestival.es

Artyco

artycoblanca@gmail.com

**Skimetraje Jaialdia**
www.skimetraje.com
info@skimetraje.com

**LabMeCrazy Zine Zientifikoaren Jaialdia**
www.unav.edu/web/labmecrazy

Universidad de Navarra

info@labmecrazy.org

**Gizartea aldatzeko filmak egitea**
www.mikelbelascoain.com/film-making-for-social-change

Mikel Belascoain

mikelbelas@gmail.com

**FICBE -Gai Sozialei buruzko Film Laburren Nazioarteko Jaialdia**
www.berriozar.es

Ayuntamiento de Berriozar

berriozar@berriozar.es

**Lo que viene**
www.loqueviene.es

Consorcio Eder

eder@consorcioeder.es

**Conecta Fiction**
www.conectafiction.com

Inside Content

contact@insidecontent.tv

# AKITANIA BERRIA



# AKITANIA BERRIA

## 1) LEHENTASUN NAGUSIAK

Alcak, Akitania Berriko edizioaren eta zinemagintzaren kultur agentziak, askotariko zerbitzuak eskaintzen ditu industria zinematografikoei eta telebistari laguntzeko. Fikziozko eta animaziozko filmak eta dokumentalak sortzeko eta ekoizteko babesa ematen du, honako hauen bidez: finantzaketa, artistentzako erresidentzia-programak, elkarketak nazioarteko laborategi eta merkatuekin eta eskualde mailako batzorde zinematografikoa.

Era berean, babesa ematen die eskualdeko arlo zinematografikoko profesionalei, estatu mailako zein nazioarteko jaialdietan eta koprodukzio-ekitaldietan, eta filmak banatzen eta sustatzen laguntzen du.

Akitania Berriak 7 milioi euroko funts zinematografikoa kudeatzen du. Tokiko 6 erakundek ere babesa ematen dute finantza-arloan eta hala, 11 milioi euroko funtsa dago guztira.

## 2) ATZERRIKO FILM ETA TELESAILETARAKO ZERGEN ETA ZERGA-KREDITUEN ITZULKETAK

**KENKARIAK ZERGETAN, NAZIOARTEKO PRODUKZIORAKO**

- **Hobari mota**: %30 (%40 efektu bisual asko dituzten proiektuetarako, VFX).
- **Gutxieneko gastua**: 250 000€.
- Gehieneko errenboltsoa, proiektu bakoitzeko: 30 milioi euro (34 milioi dolar)
- Urteko mugarik gabe.
- Behin behineko akordioa 3 astetan.
- **VFX HOBARIA**: %10eko hobaria aplikatzen zaie VFXen harira Frantzian 2 milioi eurotik gorako gastuak izan dituzten proiektuei. 2 milioi euroko muga gainditu ostean, %40ko beherapena aplikatzen da zergetan, proiektuaren gastu hautagarri guztietarako, VFXekin zerikusirik ez duten hartualdi errealen ondorioz izandako gastuetarako barne.

Frantzian gauzatu ez diren proiektuak babesten ditu TRIPek, osorik edo zati batean Frantzian ekoiztu baldin badira.

Atzerriko ekoizleak Frantziako enpresa bat kontratatu behar du Frantzian filmatzeaz eta/edo animazio/VFX hartualdiak egiteaz arduratzeko, produkzio zerbitzuen kontratu baten bitartez.

**Oharra**: TRIP frantsesak ez diren produkzioetarako baino ez da. Horrenbestez, aukeratu egin beharko da: proiektua frantsesa bihurtu beharko da (koprodukzio itun baten bitartez eta CNC sartuta) edo proiektuak TRIP lortu beharko du.

**HARREMANETAN JARTZEKO**

**Film France**
www.filmfrance.net
film@filmfrance.net
rebate@filmfrance.net
+33 (0)1 53 83 98 98

**Centre National du Cinéma et de l'image Animée**
291 Boulevard Raspail
75675 Paris Cedex 14
+33 (0)1 44 34 34 40

## 3) ESKUALDE MAILAN ZINEMAGINTZAREN ETA IKUS-ENTZUNEZKOEN SEKTOREARI LAGUNTZEKO ARDATZ NAGUSIAK

**AKITANIA BERRIKO GOBERNUAREN DIRU-LAGUNTZA NAGUSIAK**

**ALCAk kudeatutako zinemagintzarako funtsa:**

- Zinematografiarako funtsak arlo guztiak (dokumentala, fikzioa, animazioa) eta sormen-prozesuaren etapa guztiak barne hartzen ditu.

- Zinemagintza babesten du (film luzeak, film laburrak, dokumentalak, animazioa) eta baita ikus-entzunezko programak ere (fikzioa, dokumentala, animazioa).

- Diru-laguntzaren zenbatekoa filmaren produkzio etaparen araberakoa da: gidoia idaztea, filma garatzea eta ekoiztea.

- Proiektu bakar baterako, sormen-prozesuko etapa guztietarako diru-laguntzak pila daitezke.

- Tokiko administrazioaren funtsa gehi dakioke eskualde mailako funtsari.

- Nazioarteko koprodukzioek ere funts honetarako sarbidea izan dezakete, produkziorako eskualdean kokatutako kide bat badute. Gutxi gorabehera, 20 produkzio enpresek parte hartzen dute arlo guztietako nazioarteko koprodukzioetan.

**Akitania Berriko Kultura Sailak kudeatutako beste funts batzuk:**

- Programei laguntzeko egiturak

- Postprodukziorako laguntza.

- Film luzeetarako berrikuntza funtsa.

- Film luzeetarako berrikuntza funtsa.

- “Helburuetarako eta baliabideetarako kontratuak” eskualdeko telebista-kateekin (Garapen digitalerako zuzendaritza).

## 4) MUGIKORTASUN FUNTSA

**Alcaren tokiko laguntza**
(Urte osoan zehar):

- Laguntza merkatuei eta delegazioei: nazioarteko merkatuetan parte hartzeko (akreditazioa, lekualdaketen eta ostatuaren gastuak).

- Nazioarteko erresidentzietarako laguntza

## 5) AURKEZTEKO EPEA

**Zinemagintzarako funtsak**:

- 3 data daude eskabideak aurkezteko: urtarrila, iraila eta apirila film laburren, dokumentalen, film luzeen eta animazio filmen kasuan.

- 4 data daude telebistarako filmen kasuan: iraila, urtarrila, martxoa eta maiatza.

## ELKARTE SEKTORIALAK

**ATANA**
Taldeko kideak
www.facebook.com/atana.asso
atana.ass@gmail.com
06 78 59 60 86

**CINA**
Akitania Berriko zinema-areto independenteen sarea
www.cinemas-na.fr
05 56 12 08 87

**COLLECTIF DES FESTIVALS DE CINÉMA ET D'AUDIOVISUEL EN NOUVELLE-AQUITAINE**
Akitania Berriko zinema eta ikus-entzunezko jaialdien multzoa
www.festivalscinema-na.com
festivals.cinema.na@gmail.com

**FEDE-REC**
Akitania Berrian grabatutako musika errealizatu eta sortzen duten profesionalen federazioa
www.fede-rec.org
info@fede-rec.org

**GROUPE FICTION**
www.fr-fr.facebook.com/groupefictionnouvelleaquitaine/
legroupefiction@gmail.com

**ITENA CINÉMA & AUDIOVISUEL**
Zerbitzu-hornitzailea
contact.itena@gmail.com
www.facebook.com/itenaquitaine/

**NAAIS**
Egileak eta zuzendariak
www.naais.fr
naais.auteurs@gmail.com
07 68 91 84 94

**PENA**
Ekoizleak
www.produire-en-nouvelle-aquitaine.org
pena.nouvelleaquitaine@gmail.com

## TELEBISTA

**F3 NA**
www.france3-regions.francetvinfo.fr/nouvelle-aquitaine/
05 56 01 38 38

**KANALDUDE**
www.kanaldude.eus
05 24 34 50 14

**OC TV**
www.octele.com
contact@octele.com
05 47 41 48 93

**TV7**
www.sudouest.fr/lachainetv7/
05.35.31.31.31

## BESTE ELKARTE BATZUK

**CINÉMATHÈQUE DE NOUVELLE AQUITAINE**
LIMOGES
09 53 32 47 14

## FILM COMMISSION-AK

**ESKUALDEKO FILM COMMISSION – ALCA**
Coordination of the film commission (Bordeaux, Angoulême, Limoges)

Mia Billard

www.alca-nouvelle-aquitaine.fr/fr/cinema-audiovisuel/commission-regionale-du-film
05 47 50 10 06

Alca manages a 8 local films commissions network based across the entire territory.

## INSTITUZIOAK/ ERAKUNDEAK

**AKITANIA BERRIA / KULTURA SAILA**
www.nouvelle-aquitaine.fr/aides-et-ressources/les-aides-de-la-region
05 57 57 80 00/ 05 57 95 02 02

**ALCA**
Zinema eta Ikus-entzunezkoen Saila

Emmanuel Feulié

Noémie Benayoun

www.alca-nouvelle-aquitaine.fr/fr/cinema-audiovisuel
05 47 50 10 00

**MAGELIS**
Klusterraren dinamizazioa
www.magelis.org/
05 45 38 00 00

**EUROESKUALDEA**
www.euroregion-naen.eu
05 59 01 64 80

## JAIALDIAK

Main Festivals among 40 supported by the Region.

**FIPADOC – Biarritz – Dokumentalen Nazioarteko Jaialdia**
www.fipadoc.com

**Festival Filmer le Travail - Poitiers**
www.filmerletravail.org

**Festival de cinéma de Brive -Rencontres internationales du moyen métrage**
www.festivalcinemabrive.fr/en/home-2/

**Sunny Side of the doc – La Rochelle**
www.sunnysideofthedoc.com/fr/accueil.htm

**Festival du Film de La Rochelle**
www.festival-larochelle.org

**Festival du Film Francophone - Angoulême**
www.filmfrancophone.fr

**Festival de Cinéma Latino-Américain - Biarritz**
www.festivaldebiarritz.com

**Festival de la fiction tv - La Rochelle**
www.festival-fictiontv.com

**Festival International du Film de Saint Jean de Luz**
www.fifsaintjeandeluz.com

**Festival International du Film Indépendant de Bordeaux**
www.fifib.com

**Festival du Film de Sarlat**
www.festivaldufilmdesarlat.com

**Festival International du Film d'Histoire de Pessac**
www.cinema-histoire-pessac.com/

**Poitiers Film Festival**
www.poitiersfilmfestival.com

**Cartoon Movie - Bordeaux**
www.cartoon-media.eu

EURO**ESKUALDEA**

KOPRODUKZIO GIDA

*ZINEMA*

EURORÉGION
EUROESKUALDEA
EURORREGIÓN

NOUVELLE-AQUITAINE • EUSKADI • NAVARRE
AKITANIA BERRIA • EUSKADI • NAFARROA
NUEVA AQUITANIA • EUSKADI • NAVARRA

BASQUE. AUDIOVISUAL.

NAVARRA FILM INDUSTRY

ALCA

AGENCE LIVRE
CINÉMA & AUDIOVISUEL
EN NOUVELLE-AQUITAINE